



AHOKO KIRURGIAREN AURREKO JARRAIBIDEAK

Ahoko kirurgia interbentzio anbulatorioa da, hau da, ebakuntza kirurgikoa amaitzean etxera joateko aukera izango duzu.

Hori bai, zure erosotasunerako gomendagarria da ospitalera bakarrik ez etortzea.

Ez da beharrezkoa baraurik egotea ebakuntza egiteko; beraz, normaltasun osoz jan eta edan dezakezu.

Gosariarekin batera, hartu agindutako medikazioa, kirurgia edozein ordurako programatuta egonda ere:

1 gr AMOXICILINA, bi konprimitu (penizilinari eta haren deribatuei alergia izanez gero, 300 mg-ko bi CLINDAMICINA kapsula hartzeko aginduko zizuten).

Kirurgia baldintza higieniko ezin hobeetan egin behar da; horregatik, honako gomendio hauek jarraitzeko eskatzen dizugu:

- Eskuilatu ahora ondo ebakuntza kirurgikoa egin aurretik.
- Ebakuntza kirurgikoaren aurreko egunean, hasi ahoa garbitzen % 0.12ko kontzentrazioa duen CLORHEXIDINA desinfektatzailearekin, eta ebakuntza egunean ahoa eskuilatu ostean ere berriro egin.
- Hitzordura aurpegia garbituta eta makillatu gabe etorri.
- Hitzordura arropa eroso eta lasaiarekin etorri. Gerria estutzen duten arropak ez janztea gomendatzen dizugu.
- Interbentzioan ezin duzu inolako objektu metalikorik jantzita eduki (harribitxiak, erlojua, eta abar). Hitzordura etorri aurretik kendu objektu guztiok edo ospitalera zurekin joandako pertsonari eman interbentzioaren aurretik.
- Hortz-protesi erauzgarria erabiltzen baduzu (hortzordeak), interbentzio kirurgikoaren aurretik kendu beharko duzu.

Ospitalean egin ez den erradiografiarik baldin baduzu (erradiologia apikalak, ortopantomografia edo ordenagailu bidezko tomografia axialak), BEHARREZKOA da egun horretan erradiografia horiek ekartzea.

